

Funtsezko-baliabideak

Gure enpresaren balio-proposameneko eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru sarrerek sortzeko gure enpresak hainbat funtsezko elementu betetzen ditu.

Lehenik baliabide fisikoak beharko ditugu gure proiektua aurrera eramateko, pabilioi batean instalatuko gara bertan produktua ekoizteko, baita ere makinaria zehatza beharko dugu konpresorearen piezak muntatzeko, nola ez bestelako aparatuak ere erabiliko ditugu gure produktua gestionatzeko. Bukatzeko furgoneta batzuk erabiliko ditugu garraio gisa.

Bestalde giza baliabide eta intelektualen beharra izango dugu, produktuaren diseinu optimo bat lortzeko eta honen salmentarako antolaketa on bat lortzeko. Honetarako pertsonala beharko dugu bertan lan egiteko.

Bukatzeko finantza baliabideen beharra edukiko dugu gure etekinak egoki inbertitzeko, enpresak sortzen dituen aukerak aprobetxatzeko eta arriskuak ekiditeko.

